Baztango Udala

**BAZTANGO UDALEKO BERDINTASUN BATZORDE IREKIAREN BILKURA**

***REUNIÓN DE LA COMISIÓN ABIERTA DE IGUALDAD DEL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN***

| | |
|---|---|
| **Data**: **2014ko irailaren 3an** | *Fecha: 3 de Septiembre de 2014* |
| Hasiera ordua: 18:00<br>Bukaera ordua: 20:00<br>Lekua: Baztango Udala | *Hora de inicio: 18:00*<br>*Hora de finalización: 20:00*<br>*Lugar: Ayuntamiento de Baztan* |
| Bertaratutakoak: Garbiñe Elizegi Narbarte, Nora Salbotx, Karlos Beristain, eta Oihana Gallo | *Asisten: Garbiñe Elizegi Narbarte, Nora Salbotx, Karlos Beristain, y Oihana Gallo* |
| Gai-zerrenda:<br>1. Aurreko Batzordeko aktaren onartzea (2014-06-27)<br>2. Baztango I. Berdintasun Plana.<br>3. Eta bestetan... zer? balorazioa.<br>4. Urriak 15 (Landa eremuko emakumeen nazioarteko eguna)<br>5. Azaroak 25erako proposamenak eta egitaraua.<br>6. 2014-2015 ikasturterako proposamenak.<br>7. INAFI-ko diru laguntzen inguruko informazioa.<br>8. Lanbide eskolako proposamena.<br>9. Bestelakoak. | *Orden del día:*<br>*1. Aprobación del acta de la anterior Comisión (27-06-2014)*<br>*2. I. Plan de Igualdad de Baztan*<br>*3. Evaluación  Eta bestetan... zer?*<br>*4. 15 de Octubre (Día internacional de las mujeres rurales)*<br>*5. Propuestas y progamación del 25 de Noviembre.*<br>*6. Propuestas para el curso 2014-2015*<br>*7. Informar sobre la subvención del INAFI*<br>*8. Propuesta de La Escuela Laboral de Elizondo*<br>*9. Varios* |
| Lehendabiziko puntua: | *Primer punto:* |
| Aitzineko akta onartu da. | *Se aprueba el acta anterior por* |

| | |
|---|---|
| | *unanimidad.* |
| Bigarren puntua: | *Segundo punto:* |
| Baztango I. Berdintasun Plana.<br><br>**Diagnostikoaren** zabalkundea nola egin den jakinarazi da. Uztailaren 17an prentsaurrekoa egin zen eta zenbait komunikabideetan oihartzuna izan duela aipatu da. Bestalde, Diagnosiaren laburpenaren esku orriak etxez etxe banatu dira enplegu babestuko langileen bidez. Baztango toki publikoetan ere utzi dira ale batzuk. Herriz herri errepasoa egingo da eta soberan daudenak ikastetxeetan eta ostatuetan banatuko dira azaroaren 25eko programazioarekin batera.<br><br>**Lan saioei** dagokionean, azken batzordean proposatu bezala, arloka lan saioak egiten direla jakinarazi da. Hauek dira orain arte egin diren lan saioak:<br>-Kultura, Aisialdia eta Kirola (2)<br>-Hezkuntza eta Gaztedia (3)<br>-Tokiko Garapena eta enplegua (4)<br>-(Osasuna) eta Gizarte Zerbitzuak<br><br>Kirola, Lurralde antolamendua eta Tokiko Administrazioa falta direla jakinarazi da.<br><br>Hezkuntza batzordean eta Osasun kontseiluan aurkezpenak egingo direla jakinarazi da.<br><br>Berdintasun Batzordeko kideek ekarpenak egiteko aukera eman zaiela aipatu da eta orain arte erabilitako metodologiarekin jarraitzea adostu da.<br><br>**Aurkezpenak**. Planaren zirriborroaren aurkezpenak azaroan egitea adostu da eta aurretik erabaki bezala 4 | *I. Plan de Igualdad de Baztan*<br><br>*Se informa sobre la difusión del Diagnóstico. El 17 de Julio se realizó una rueda de prensa la cual tuvo repercusión en diferentes medios de comunicación. Por otro lado, se han repartido los folletos informativos en todas los domicilios mediante el personal de empleo social protegido. Se decide repartir los folletos sobrantes junto con la progamación del 25 de Noviembre.*<br><br>*En cuanto a las sesiones de trabajo se informa las áreas que se han trabajado hasta el momento: son las siguientes:*<br>*-Cultura, ocio y (deporte)*<br>*-Educación y juventud*<br>*-Desarrollo local y empleo*<br>*-(Salud) y Servicios Sociales.*<br><br>*Se hace saber que faltan por trabajar las áreas de Deporte, Administración Local y Ordenación del territorio.*<br><br>*Se informa que la técnica de Igualdad hara una breve prestentación en la Comisión de Educación y de Salud.*<br><br>*Por otro lado, La Comisión abierta de Igualdad ha podido hacer las aportaciones opurtunas y en las siguientes semanas se seguirá con la misma metodología.*<br><br>*Presentaciones del Plan. El primer borrador del Plan de Igualdad se presentará en los 4 cuarteles en Noviembre, tal y como se decidió en la última Comisión.* |

| | |
|---|---|
| kuarteletan egingo dira. Herritarrei ekarpenak egiteko aukera eskainiko zaie eta honela, parte hartze prozesua itxiko da.<br><br>Berdintasun Planak izango duen hezurdura adostu da.<br><br>1- SARRERA<br>2-AURREKARIAK<br>3-BERDINTASUNERAKO PLANEN ARAUDIAREN ETA LEGEEN ESPARRUA<br>4-PLANA DISEINATZEKO ERABILITAKO METODOLOGIA<br>**5. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA**<br>-EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEKO ARDATZ ESTRATEGIKOAK<br>-EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAREN HELBURUAK<br>-EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAREN HELBURUAK ARLOZ ARLO (Arlo bakoitzeko laburpena gehituko da)<br><br>*1-Tokiko administrazioa*<br>2-*Kultura, aisialdia eta kirola*<br>*3-Hezkuntza eta gaztedia*<br>*4-Tokiko garapena eta Enplegua*<br>*5-Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak*<br>*6-Lurralde antolamendua*<br><br>6. BERDINTASUNERAKO PLANA GARATZEKO **EGITURAK**<br>7. BERDINTASUNERAKO PLANAREN **JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**<br>8. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN PLANA GARATZEKO **BALIABIDEAK**<br>**9. KRONOGRAMA**<br><br>Berdintasun Plana garatzeko beharrezkoak diren <u>koordinazio egituren</u> inguruan hitz egin da. Berdintasun Batzorde irekia indartzearen beharra azpimarratu da. Koordinazioa dela eta, Udal langile eta politikariz osatutako egituraren beharra ere ikusi da. 4 hilabetean behin eta goizez egitea proposatuko | *Se dará la posibilidad de que la ciudadanía pueda hacer sus aportaciones y así se dará por finalizado el proceso participativo de la elaboración del Plan.*<br><br>*Se presenta y se aprueba por unanimidad la estructura del Plan.*<br><br>1- INTRODUCCIÓN<br>2-ANTECEDENTES<br>3-NORMATIVA Y ÁMBITO LEGAL DEL PLAN DE IGUALDAD.<br>4-METODOLOGÍA UTILIZADA PARA EL DISEÑO DEL PLAN.<br>**5. PLAN DE IGUALDAD ENTRE MUJERES Y HOMBRES**<br>-EJES ESTRATÉGICOS PARA ALCANZAR LA IGUALDAD ENTRE MUJERES Y HOMBRES.<br>-OBJETIVOS A ALCANZAR<br>-OBJETIVOS POR ÁREAS. (Breve resumen del diagnóstico por áreas)<br><br>*1-Administración local.*<br>2-*Cultura, Ocio y Deporte.*<br>*3-Educación y Juventud.*<br>*4-Desarrollo local y empleo.*<br>*5-Salud y Servicios Sociales*<br>*6-Ordenación del territorio.*<br><br>6. ESTRUCTURA **ORGANIZATIVA** PARA DESARROLLAR EL PLAN DE IGUALDAD<br>7. **SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN** DEL PLAN DE IGUALDAD.<br>8. **RECURSOS** PARA LA REALIZACIÓN DEL PLAN DE IGUALDAD<br>**9. CRONOGRAMA**<br><br>*Se debate sobre la estructura organizativa mas idónea. Se subraya la importancia de fortalecer la Comisión abierta. En cuanto a la coordinación se ve necesario una estructura formada por los y las trabajadores y trabajadoras del Ayuntamiento y el personal político. Se propone la periodicidad de una vez cada 4 meses.* |

| | |
|---|---|
| da.<br>Planaren aurrekontua adosteko, aurreikuspen bat egitea adostu da. | *Se decide hacer una estimación del presupuesto anual del Plan.* |
| Hirugarren puntua: | *Tercer punto:* |
| **Eta bestetan... zer? kanpaina**.<br>Bestetako kanpainaren balorazioa egin da. 15 herrietan egoera ezberdinak eman dira baina orokorrean harrera ona izan du kanpainak. Baztandarren Biltzarrerako 1.000 pegatina atera ziren eta harrera ona izan zutela aipatu da.<br><br>Datorren urtean lehenago bidaltzeko eskatu zaio INAFIri. Dena den, maiatzeko bestetarako aurtengo irudia erabiltzea adostu da. | *Y en fiestas...que?*<br>*Se hace la valoración de la campaña de fiestas. Se han dado diferentes casuisticas en los 15 pueblos del Valle pero en general la campaña ha tenido buena aceptación. El dia del Baztandarren Biltzarra se repartieron 1.000 pegatinas y la aceptación también fué buena.*<br>*El próximo año se le pedirá al INAFI adelantar la campaña. Aún asi, en las primeras fiestas utilizaremos el logo de éste año.* |
| Laugarren puntua: | *Cuarto:* |
| **Urriaren 15ean landa eremuko emakumeen eguna** ospatzeko ekintza xume bat egitea proposatu da.<br>"81 amama"bideo emanaldi eta solasaldia egitea erabaki da. | *Se da a conocer que el día 15 de Octubre es el día de la mujer del medio rural. Se propone realizar un Video forum de "81 amama"* |
| Bosgarren puntua: | *Quinto punto:* |
| Azaroaren 25eko programazioaren inguruan hitz egin da. Aurreko urteetako antzeko egitaraua prestatzea proposatu da.<br>-Gazteekin gaia lantzeko ikastetxeetan ahalegin berezia egin behar dela azpimarratu da. Aurten, 2 solasaldi egitea proposatuko zaie.<br>-Hezkuntza Batzordeari proposatu zaio azaroaren 25ean Baztango ikastetxe guztien artean ekintza xumeren bat antolatzea.<br>-Aurreko urteetan bezala, Kultura batzordeak lagunduta ikuskizunen bat antolatzea proposatuko da. | *Se habla sobre la programación del 25 de Noviembre. Se aprueba organizar una programación muy parecida a la de años anteriores.*<br>*-Se menciona la importancia de trabajar el tema en los centros educativos con la gente joven. Este año se propondrán 2 charlas.*<br>*-Se decide proponer al la comisión de educación, que se realice una actividad conjunta entre todos los centros educativos de Baztan para el 25 de Noviembre.*<br>*-Como en años anteriores con la ayuda de la Comisión de Cultura se* |

| | |
|---|---|
| -Liburutegian gaiaren inguruko lanketa berezia egitea proposatu da.<br>-Batzordekide batek proposamena egin du. Kamisibai teknika erabiliz, Marizipriztinek ez du zorioneako galeperrik nahi ipuina kontatzeko materiala sortu du baztandar batek. Baztango ikastetxeetara eramateko dauden aukerak aztertzea erabaki da. | *propone realizar alguna actividad.*<br>*-Se propone realizar algún trabajo conjunto con la Biblioteca.*<br>*-Utilizando la técnica Kamisibai, una persona de Baztan ha elaborado el cuento de "Marizipriztinek ez du zorioneako galeperrik nahi". Se propone hacer copias y ofrecer a los centros educativos de Baztan.* |
| <u>Seigarren puntua:</u> | *<u>Sexto punto</u>:* |
| Kultura batzordetik antolatzen diren ikastaroen inguruan hitz egin da. Ipuin ez sexistak lantzeko tailerra egitea proposatu da. Bestalde, jasotako proposamen baten inguruan ere hitz egin da. Momentuz, Udaletik ez eskaintzea erabaki da. | *Se comentan las propuestas de los cursos que se ofrecen desde la Comisión de cultura. Se propone realizar un taller de cuentos no sexistas. Se da a conocer un propuesta recibida y se decide, por ahora, no ofertar desde el Ayuntamiento.* |
| <u>Zazpigarren puntua:</u> | *<u>Séptimo punto:</u>* |
| Berdintasun teknikaria kontratatu ahal izateko Nafarroako Gobernuak ematen duen diru laguntzaren inguruan hitz egin da.Baztanek iazko kopurua jasoko du. Nafarroako bi herrietan murrizketak egon direla jakinarazi da eta egoeraren berri eman da. | *Se informa sobre la ayuda que concede el Gobierno de Navarra a traves del INAFI para contratar la técnica de Igualdad el municipio. Baztan recibirá la misma subvención que el año pasado. Se habla sobre los recortes que han sufrido dos municipios de Navarra.* |
| <u>Zortzigarren puntua:</u> | *<u>Octavo punto:</u>* |
| Lanbide eskolatik jaso den eskaeraren berri eman da. Irailaren 8an Baztango berdintasun sailaren aurkezpena eta indarkeria sexistaren gaia landuko duen saio bat egingo dela jakinarazi da.<br><br>Hezkuntza Batzordeari ekimen hau beste ikastetxeetan egiteko proposamena egitea adostu da. | *Se informa sobre la petición realizada desde la Escuela Laboral de Elizondo. El 8 de Septiembre se dará una charla informativa sobre el Servicio de Igualdad y por otro lado se abordará el tema de violencia sexista.*<br><br>*Se decide hacer la propuesta a la Comisión de Educación para hacerlo en otros centros.* |
| <u>Bederatzigarren puntua:</u> | *<u>Noveno:</u>* |
| | |

| | |
|---|---|
| Betelakoak:<br>- Irailaren bukaeran **<u>Udal buletina</u>** kaleratuko da. Berdintasun sailetik Planaren berri ematea adostu da. Planaren egitura zein izango den, eta kuarteletako aurkezpenak noiz izango diren.<br>-Batzordekide batek jakinarazi du Hezkuntza sailetik Hezkidetzaren inguruko ikastaroak ematen dituztela ikastetxeetan. Kurtsoan zehar egiteko ikastaro hauen eskaerak orain egin behar dira eta Baztango ikastetxe guztien artean eskaera egitea egokia izan daitekeela aipatu da. Hezkuntza Batzordeko zinegotziari proposatzea erabaki da. | *Varios:*<br>*-A finales de Septiembre se publicará el Boletín del Ayuntamiento. Se decide dar a conocer la estructura del plan y las presentaciones de los 4 cuarteles.*<br><br>*-Se informa que desde Educación se ofrecen cursos de Coeducación para el profesorado. Las peticiones se deben realizar ahora y sería oportuna hacer la petición en nombre de todas las escuelas de Baztan.*<br>*Se decide hablar con la concejala de Educación.* |
| Bertzerik ez denez aipatzen, amaitutzat jotzen da bilkura arratsaldeko 20:00etan. | *No habiendo más temas que tratar, se finaliza la reunión a las 20:00 horas.* |

Elizondon, 2014ko irailaren 3an.
En Elizondo, a 3 de Septiembre del 2014.